



# KIROL EREMUAK, ETA BERTAKO BULEGO ETA LOKALAK LAGATZEKO ARAUDIA

## NORMATIVA PARA LA CESIÓN DE LAS ZONAS DEPORTIVAS, Y LOCALES Y OFICINAS DE LAS MISMAS

**Onarpena:** Udalbatzak 2015/12/15ean

**Argitalpena:** GAOn, 2016/05/26an ([pdf](#))

**Aprobación:** Pleno de 15/12/2015

**Publicación:** BOG de 26/05/2016 ([pdf](#))

### TESTU KONTOLIDATUA:

#### TEXTO CONSOLIDADO:

Honako testu kontsolidatu honek Araudiaren testua jasotzen du, ondorengo aldaketak barne, eta horren helburua da irakurtzeko eta ulergarria izateko erraztasunak ematea. Hala ere, jakinarazten da balio legala duen testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa dela (era berean, aldaketa ofizialak ere aipatu aldizkari ofizialean argitaratutakoak dira).

El presente Texto Consolidado presenta, en un único redactado, la Normativa con sus posteriores modificaciones para facilitar su lectura y comprensión. No obstante, se advierte que el único texto con valor legal es el publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa (asimismo, las modificaciones oficiales son las publicadas en el citado Boletín Oficial).

ZIOEN ADIERAZPENA .....	2	EXPOSICIÓN DE MOTIVOS.....	2
ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK .....	2	TITULO PRELIMINAR. DISPOSICIONES GENERALES ...	2
I. TITULUA. LAGAPENAK .....	3	TÍTULO I. DE LAS CESIONES .....	3
II. TITULUA. LOKALAK ERABILTZEKO ARAU OROKORRAK .....	5	TÍTULO II. DE LAS NORMAS GENERALES DE USO DE LOCALES .....	5
III. TITULUA. KIROL TALDEEN, IKASTETXEEN ETA UDALAREN BETEBEHARRAK .....	6	TÍTULO III. OBLIGACIONES DE LOS CLUBS, DE LOS CENTROS DOCENTES Y DEL AYUNTAMIENDO.....	6
IV. TITULUA. LAGAPENA IRAUNGITZEA ETA LAGAPENAK ITZULTZEA .....	11	TÍTULO IV. EXTINCIÓN DE LA CESIÓN Y DEVOLUCIÓN DE LAS CESIONES.....	11
AZKEN XEDAPENAK .....	12	DISPOSICIONES FINALES.....	12



## KIROL EREMUAK, ETA BERTAKO BULEGO ETA LOKALAK LAGATZEKO ARAUDIA

### ZIOEN ADIERAZPENA

Arrasaten duela urteetatik kirol taldeek eta ikastetxeek instalazioen eremuak, eta bertan dauden udal bulego eta lokalak lagatzea eskatu izan dute. Hori horrela, urtero, eskaera bidez utzi izan dira eremu horiek.

2014ko abenduan, AUKEA desegin da eta Udaleko Kirol departamentura pasa dira kirol arloko eskumen guztiak, 2015eko urtarrilean. Horrez gain, kirol talde eta ikastetxeek giltzak dituzten kirol instalazio eta lokaletarako, eskaera sistema aldatu, eta lagapen sistemara pasatzea erabaki du Udalak.

Ondorioz, Udalak aipatutako eskatzaile guztientzat aplikagarri izango den Ordenantza orokor hau prestatu du, eta ondoren, hitzarmenak sinatuko ditu kirol talde eta ikastetxeekin.

### ATARIKO TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. artikulua. Xedea.

Erregelamendu honen xede dira Udal honek kirol taldeei eta ikastetxeei egin ditzakeen udal lokalen lagapenak eta orobat, lagapen-hartzaileek egin behar duten lokalen erabilera arautzea.

#### 2. artikulua. Lagapenen izaera.

Lagapenek aldi baterako izaera izango dute eta kirol eremu inguruko lokalei izango zaie aplikagarri. Ez da araudi hau aplikatuko kirol

## NORMATIVA PARA LA CESIÓN DE LAS ZONAS DEPORTIVAS, Y LOCALES Y OFICINAS DE LAS MISMAS

### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Desde hace años los clubs deportivos y los centros docentes han solicitado la cesión de las zonas deportivas y locales y oficinas de las mismas. Por ello, se han dejado dichas zonas mediante solicitudes anuales.

En diciembre de 2014, AUKEA se disolvió y todas las competencias relativas a ella han pasado a ser parte de la gestión del departamento de Deportes del Ayuntamiento en enero de 2015. Por otra parte, para las instalaciones donde los clubs y centros docentes tengan llaves para el acceso, el Ayuntamiento ha decidido cambiar del sistema de solicitudes anuales al sistema de cesiones.

Por todo lo expuesto, el Ayuntamiento ha elaborado la siguiente Ordenanza general de aplicación a todos los solicitantes mencionados. Así, después de su aprobación se firmarán convenios de cesión con los clubs deportivos y centros docentes.

### TITULO PRELIMINAR. DISPOSICIONES GENERALES

#### Artículo 1. Objeto.

Es objeto de este reglamento la regulación de las cesiones de locales municipales que este Ayuntamiento pueda hacer a los clubs deportivos y a los centros docentes, y el uso que de los mismos hayan de hacer los cesionarios.

#### Artículo 2. Naturaleza de las cesiones.

Las cesiones tendrán carácter temporal y se aplicarán a los locales próximos a instalaciones deportivas. No se aplicará esta normativa para



instalazioak erreserbatzeko, horretarako, Arrasateko Udalak Kirol Instalakuntzen araudi orokorra baitu.

Horrez gain, iraupen jakin baterako diren lagapen horiek inola ere ez dira alderdietako baten aldeko eskubide ekonomiko edo errenta eskubidetzat hartuko.

## I. TITULUA. LAGAPENAK

### 3. artikulua. Onuradunak.

Bulegoen eta lokalen lagapen onuradunak izan daitezke irabazi asmorik ez duten Arrasateko Udaleko Kirol Taldeen erregistroan erregistraturik dauden kirol taldeak eta herriko ikastetxeak. Bertan erregistratuta egoteko, beharrezkoa da egoitza soziala Arrasaten izatea edo beraien jarduera, soilik, Arrasaten garatzea. Irabazi asmorik ez dutela ulertuko da beren estatutuetan hala agertzen bada eta jarduera ekonomikorik garatzen ez badute, edo garatzekotan, jarduera horren irabazia estatutuetan ezarritako interes orokorreko helburuak lortzeko erabiltzen baldin badu, bakar-bakarrik, onurak (zuzenean zein zeharkakoak) taldeko kideen edo beste batzuen artean banatu gabe.

### 4. artikulua. Laga daitezkeen eremuak.

Bertara sartzeko giltzak dituzten kirol eremuak eta bertako lokal eta bulegoak lagako dira araudi honi jarraiki; betiere, eskatzaileekin sinatzen den hitzarmenetan zehaztu beharko da zehazki zer uzten den eta ze egoeretan. Musakola kiroldegiko barne instalazioak ezingo dira laga honi jarraiki, kirol taldeek eta ikastetxeek ez baitute giltzarik eta Udalak

la reserva de las instalaciones deportivas, ya que para ello, el Ayuntamiento dispone de la Normativa General de las Instalaciones Deportivas de Arrasate.

Aparte de ello, esas cesiones de duración determinada en ningún momento podrán considerarse como constituyentes de derecho económico o arrendaticio a favor de cualquiera de las partes.

## TÍTULO I. DE LAS CESIONES

### Artículo 3. Beneficiarios.

Pueden beneficiarse de las cesiones de las oficinas y locales los clubs deportivos sin ánimo de lucro inscritos en el registro de los Clubs Deportivos del Ayuntamiento de Arrasate o los centros docentes del pueblo. Para poder registrarse en ese registro deberán tener el domicilio social en Arrasate o desempeñar su actividad solamente en Arrasate.

Se considera que no tienen ánimo de lucro cuando así se figure en sus estatutos y no desarrollen actividad económica alguna o, de desarrollarla, el fruto de esa actividad se destine única y exclusivamente al cumplimiento de las finalidades de interés general establecidas en sus estatutos, sin repartición de beneficiarios, directos o indirectos entre sus asociados o terceros.

### Artículo 4. Espacios objetos de cesión.

Siguiendo esta normativa se podrán ceder zonas deportivas para los cuales los clubes deportivos tienen llaves y locales y oficinas de dichas zonas; de todos modos, en los convenios que se firmen con los solicitantes, se deberá concretar, el objeto a ceder y su estado. No se podrán ceder las instalaciones del interior del Polideportivo Musakola, ya que



<p>egiten baitu horren kontrola.</p> <p><b>5. artikulua. Eskabideak.</b> Arrasateko kirol klubek eta ikastetxeek lehentasuna izango dute herriko kirol instalazioen eta bertan kokatutako bulegoen eta kantinen lagapena izateko. Egun dauden eskabideez gain, eskatzaile berririk egongo balitz, hauek erabileraren zergatia, taldeak eskain ditzakeen eta lagako zaien eremuan garatuko diren zerbitzuak eta aurreikusitako ordutegia azaldu beharko dira. Aurretik eskaerak egiten zituztenekin kointzidituz gero, erabilerak eta ordutegiak koadratzen ahaleginduko da, eta ezinezkoa den kasuetan Udalak erabakiko du nori laga.</p> <p><b>6. artikulua. Hitzarmenak.</b> Erabilera lagatzeko hitzarmenak berak ezarriko du horren iraupena, eta lagatako eremuak, erabiltzeko ordutegia eta ordutegiak ezarri edo aldatzeko irizpideak zeintzuk diren zehaztuko du. Hitzarmenek, halaber, ondasun higigarrien inbentarioa ere azalduko dute, horiek erabiltzeko lagapena ere egin bada.  Erabilera lagatzeko hitzarmenean, era berean, Arrasateko Udalaren eta erakunde onuradunaren arteko lankidetzari eragiten dioten beste alderdi zehatzago batzuk ere azaldu ahal izango dira.</p> <p><b>7. artikulua. Epea.</b> Lagapen epea hitzarmenetan zehaztuko da; dena den, epea ezingo da 4 urte baino handiagokoa izan.</p>	<p>los clubs y centros docentes no disponen de llaves y el Ayuntamiento es quien se encarga de su control.</p> <p><b>Artículo 5. Solicitudes.</b> Los clubs deportivos y centros docentes de Arrasate tendrán prioridad de uso de las zonas deportivas y oficinas y cantinas situadas en las instalaciones deportivas del pueblo. Aparte de las solicitudes existentes, en el caso de que hubiera nuevos solicitantes, éstos deberán concretar el motivo de la cesión, la actividad a llevar a cabo y servicios que puedan ofrecer y que desarrollarán en el espacio a ceder, así como los horarios previsibles. En el caso de que coincidan con los clubs que ya eran solicitantes de años anteriores, se intentarán cuadrar los usos y horarios, y si fuera imposible será el Ayuntamiento quien decida a quién ceder.</p> <p><b>Artículo 6. Convenios.</b> Se establecerán en el convenio de cesión la duración del mismo y los espacios cedidos, el horario de utilización y los criterios para fijar o modificar esos horarios.  Del mismo modo, los convenios incorporarán un inventario de los bienes muebles, en caso de que fueran también objeto de cesión de uso. El convenio de cesión de uso puede también referirse a otros extremos que afecten a la colaboración entre el Ayuntamiento de Arrasate y la entidad beneficiaria.</p> <p><b>Artículo 7. Plazo.</b> El plazo de la cesión se concretará en los convenios; de todas formas, el plazo no podrá ser superior a 4 años.</p>
---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------



## II. TITULUA. LOKALAK ERABILTZEKO ARAU OROKORRAK

### 8. artikulua. Erabilera.

Erakunde onuradunak berezko dituen zeregin edo jarduerak burutzeko baino ezin izango ditu erabili, betiere estatutuetako helburuei bakarrik jarraituz. Lagapen hitzarmenak zabalago arautu ahal izango du arlo hori, egokitzat jotzen diren alderdietan. Bestalde, lokala lagatzeak ez du esan nahi jarduera hori egiteko materiala ere emango denik.

Arestian aipatu ez den erabileraren bat egin nahi izanez gero, Arrasateko Udalaren baimena behar izango da, eta adostutakoa bete ezean, Udalak hitzarmena baliogabetu ahal izango du.

Era berean, kirol taldeak ezingo du laga, errentan eman edo xedapen egintzarik egin, lagatzekoa den lokalarekin, Udalak berariaz eta idatziz onartu ezean, behintzat.

### 9. artikulua. Baimenduta ez dauden jarduerak.

Lagatako lokalaren barruan eta betiere taldearen autonomia errespetatuz, ezin izango da pertsonen berdintasun printzipioen kontra doan jarduerarik egin. Beraz, debekatuta egongo dira indarkeriazko ekintzak, duintasun pertsonalaren kontrakoak, edo pertsona zein taldeak arraza, sexu, erlijio, iritzi, sexu orientazio edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozialaren ondorioz baztertzeko dituzten ekintzak.

Bestalde, debekatuta egongo da araudi honen bitartez lagatako eremu publikoak taldearen estatutuetan azaltzen ez diren jarduerak egiteko erabiltzea, baita jaiak, bazkariak, askariak, urtebetetze-jaiak edo antzeko jarduerak egiteko erabiltzea, etab. Udalak beren-beregi baimendu ez badu, behintzat.

## TÍTULO II. DE LAS NORMAS GENERALES DE USO DE LOCALES

### Artículo 8. Uso.

Los espacios se cederán para uso exclusivo por la entidad beneficiaria para aquellas funciones o actividades que le sean propias, atendiendo única y exclusivamente a sus objetos estatutarios. El convenio de cesión podrá regular más ampliamente esta materia en aquellos puntos que se estimen oportunos. La cesión de dicho local no implica la aportación de material para realizar dicha actividad.

Cualquier otra utilización diferente a las anteriores deberá ser autorizada por el Ayuntamiento de Arrasate y podrá dar lugar a la anulación del acuerdo de cesión por parte del Ayuntamiento de Arrasate en caso de incumplimiento.

Los clubs deportivos no podrán ceder, alquilar o disponer libremente de los locales, a no ser que el Ayuntamiento lo hubiera concedido expresamente y por escrito.

### Artículo 9. Actividades no permitidas.

En el interior del local cedido y dentro del respeto a la autonomía del club, no se podrán realizar actividades que contravengan los principios de igualdad de las personas, por lo que se prohíbe la realización de cualquier acto de carácter violento o que atente contra la dignidad personal o discrimine a individuos o grupos por razón de raza, sexo, religión, opinión, orientación sexual o cualquier otra condición o circunstancia personal o social.

Por otra parte, queda prohibida la utilización de los espacios públicos cedidos mediante esta normativa para la realización de actividades que no se contemplen en los estatutos del club, e incluso fiestas, comidas, meriendas, cumpleaños, etc. salvo, expresa autorización



Tabakoaren 42/2010 Legeari jarraituz, erabat debekatua egongo da tabakoa eta drogak kontsumitzea lokal horietan.

#### **10. artikulua. Erantzukizun zibila.**

Kirol talde bakoitzarena izango da zuzeneko erantzukizuna, lagatuko eremuetan, kide eta erabiltzaileek zerbait egin edo ez egitearen ondorioz, doluz edo axolagabekeriaz, hirugarrenei eragindako kalte eta galerei dagokionez.

Horretarako, taldeek erantzukizun zibileko aseguru poliza bat kontratatu beharko dute, eta kontratatu beharreko zenbateko zehatza hitzarmenetan zehaztuko da.

### **III. TITULUA. KIROL TALDEEN, IKASTETXEEN ETA UDALAREN BETEBEHARRAK**

#### **11. artikulua. Mantenua, garbiketa eta funtzionamendua.**

Kirol instalazioen garbiketa eta mantentzea Udalaren ardura da (zelaiak, pistak, aldagelak nahiz komunak), bulegoena berriz, talde onuradunarena. Lokalek beti garbi egon beharko dute eta horren jarraipena egiteko eskumena du Udalak hala egiten dela egiaztatzeko. Kontrakoa ikusiz gero, beharrezko neurriak hartu ahal izango ditu Udalak.

Udalaren kontura doaz lokalen erabilerarekin lotutako gastu guztiak, hala nola, ura, telefonoa, argindarra eta gasa, bai eta zerbitzu horiek jartzea, kontratatzea eta horiei dagozkien aparatu edo kontagailuak

del Ayuntamiento.

Según la ley 42/2010 del Tabaco queda totalmente prohibido el consumo de tabaco y drogas en estas instalaciones.

#### **Artículo 10. Responsabilidad civil.**

Cada club será responsable directo de los daños y perjuicios ocasionados a terceros en los espacios cedidos, causados por sus miembros y usuarios, bien por acción o por omisión, dolo o negligencia.

Para ello, los clubs contratarán una póliza de seguros de responsabilidad civil, y la cantidad exacta a contratar se especificará en los convenios.

### **TÍTULO III. OBLIGACIONES DE LOS CLUBS, DE LOS CENTROS DOCENTES Y DEL AYUNTAMIENTO**

#### **Artículo 11. Mantenimiento, limpieza y funcionamiento.**

Es responsabilidad del Ayuntamiento la limpieza y el mantenimiento de las instalaciones deportivas (campos, pistas, vestuarios y baños), en cambio, los grupos beneficiarios se responsabilizarán de la limpieza y el mantenimiento de los locales. Los locales deberán estar siempre limpios y el Ayuntamiento podrá realizar un seguimiento para comprobarlo. En caso contrario, el Ayuntamiento podrá tomar las medidas necesarias.

Todos los gastos relacionados con el uso del local, así como el agua, teléfono, electricidad y gas, tanto como poner dichos servicios, contratarlos o conservar y arreglar los aparatos y contadores, van a cuenta del Ayuntamiento.



kontserbatu eta konpontzea.

**12. artikulua. Bulegoa eta espazio komunak egokitzea eta obrak egitea.**

Onuradunek ezin izango dute inolako obra edo esku-hartzerik egin eurek bakarrik erabiltzeko lagatako eremuetan, ez ondasun higigarrietan ez eta, oro har, higiezin osoan ere, Arrasateko Udalak beren-beregi baimendu ez badu.

Obra edo esku-hartzeak ondasun higiezinaren onerako geratuko dira, eta egin dituztenek ez dute inolako kalte-ordain edo konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik izango.

Artikulu honen lehenengo paragrafoan xedatutakoa bete ezean, ondasuna jatorrizko egoerara lehengoratzeko agindu ahal izango du Arrasateko Udalak, eta ez da egongo kalte-ordain edo konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik. Agindutakoa burutu ezean, Udalak subsidiarioki burutu ahal izango ditu lokala lehengoratzeko obrak, eta egin duten taldeek ordaindu beharko dute kostua. Ondasuna ezin izango balitz kaltetu gabe lehengoratu, hori eragin duenak kalte-ordainak ordaindu beharko ditu eragindako kalteengatik. Hori gertatzekotan, Udalak berehala kenduko dio lokala lagatzeko baimena agindutakoa bete ez duen taldeari.

**13. artikulua. Lagatzen diren gailuak itzultzea.**

Hitzarmenei atxikiko zaizkie laga ahal izan diren gailuen inbentarioak. Lagapena amaitzen denean, onuradunak bere horretan utzi beharko du inbentarioak jasotako guztia, erabileraren ondoriozko higadura salbuetsita.

Segurtasunagatik, bulegoan Udalak lagatako ondasun higiezinak, soilik, sartu ahalko dira, baldin eta ez badu Udalak espresuki

**Artículo 12. Devolución de los bienes inmuebles cedidos.**

Los beneficiarios no podrán realizar en el espacio cedido para su uso exclusivo, ni en los bienes muebles ni en general en todo el inmueble, ningún tipo de obra o actuación sin la expresa autorización del Ayuntamiento de Arrasate.

Las obras o actuaciones quedarán en beneficio del bien inmueble, sin derecho a percibir ningún tipo de indemnización del Ayuntamiento de Arrasate.

En caso de contravenir lo dispuesto en el párrafo primero de este artículo, el Ayuntamiento de Arrasate podrá ordenar que se restituya el bien a su estado original, sin derecho a indemnización o compensación económica. En caso de no hacerlo, el Ayuntamiento de Arrasate podrá ejecutar subsidiariamente las obras de restitución, estando obligadas las entidades que lo hayan realizado a pagar el coste. Si la restitución fuera imposible sin el menoscabo del bien, el causante estará obligado a indemnizar por los perjuicios ocasionados. En este supuesto se procederá de manera automática a retirar la cesión del local por parte del Ayuntamiento de Arrasate al beneficiario.

**Artículo 13. Devolver los bienes inmuebles cedidos.**

Se adjuntarán a los convenios los inventarios de los bienes inmuebles que se hayan podido ceder. Al finalizar la cesión, el beneficiario devolverá dichos bienes en el mismo estado en que fueron asumidos, salvo el desgaste sufrido por el uso.

Por motivos de seguridad, solamente podrán meter a las oficinas bienes inmuebles cedidos por el Ayuntamiento, salvo que el



<p>baimentzen.</p> <p><b>14. artikulua. Orduategia.</b> Publikorako zabalik dauden egun eta orduetan, soilik, erabili ahalko dira lokalak, Hitzarmenetan kontrakoa esaten duenik ezarri ezean edo Udalaren berariazko baimenarekin.</p> <p><b>15. artikulua. Onuradunen bestelako betebeharrak.</b> Aurrekoez gain, beste betebeharrak hauek izango dituzte:</p> <p>a) Lagatzeko baimena eman zuen udal organo eskudunaren erabakian ezarritako ordutegiak edo Arrasateko Udalak baimendutako gainerakoak errespetatzea.</p> <p>b) Laga den eremua erakundearen beraren helburuetarako erabiltzea edo Udalak baimen dezakeen edo erabakian ezarrita dagoen beste erabileraren baterako erabiltzea.</p> <p>c) Zentroan hirugarrenen merkataritza-publizitaterik ez egitea, udalak baimena eman ez badu. Publizitaterik hartuko da zerbitzuak edota ondasun higigarri edo higiezinak kontratatu zein salerostea, zuzenean ala zeharka, erraztu edo sustatzeko helburua duen edozein komunikazio-modu.</p> <p>d) Esleitutako eremuan eta zentroan eurekin batera egon daitezkeen gainerako erakunde onuradunak errespetatzea, trabarik ipini gabe, euren jarduerak behar bezala garatu ahal izan ditzaten.</p> <p>e) Erabilera komuneko eremuen helburu eta erabilera errespetatzea.</p> <p>f) Auzotarrei eragozpenik ez sortu eta guneko lasaitasuna ez asaldatzea erabilera ordutegiaren barruan, indarrean dauden arauetan ezarritako neurri egokiak hartuta.</p> <p>g) Erabiltzeko laga diren eremuak osasun-</p>	<p>Ayuntamiento lo autorice expresamente.</p> <p><b>Artículo 14. Horario.</b> Los locales se podrán utilizar solamente en los días y los horarios abiertos al público, salvo los convenios dispusieran lo contrario o con la autorización expresa del Ayuntamiento.</p> <p><b>Artículo 15. Otras obligaciones de los beneficiarios.</b> Junto con las obligaciones anteriores, tendrán las siguientes:</p> <p>a) A respetar los horarios de utilización establecidos en el acuerdo del órgano municipal competente de cesión o aquellos otros que le autorice el Ayuntamiento de Arrasate.</p> <p>b) A destinar el espacio cedido a las finalidades propias de la entidad, como también a lo que establece el acuerdo o pueda autorizar el Ayuntamiento.</p> <p>c) A no realizar en el centro ningún tipo de publicidad mercantil de terceros, salvo con autorización municipal. Entendiendo por publicidad toda forma de comunicación que tenga por objeto favorecer o promover, de forma directa o indirecta, la compra/venta o contratación de servicios y/o bienes muebles o inmuebles.</p> <p>d) A respetar los espacios asignados y a otras entidades beneficiarias que puedan compartir el centro sin interferir en el normal desarrollo de sus actividades.</p> <p>e) A respetar la finalidad y destino de los espacios de uso común.</p> <p>f) A no causar molestias al vecindario ni perturbar la tranquilidad de la zona durante los horarios de utilización, adoptando las medidas oportunas establecidas en la normativa vigente.</p> <p>g) A conservar los espacios asignados para su</p>
----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------





<p>egoera eta higiene baldintza hobezinetan zaintzea.</p> <p>h) Zentroko giltzak zaindu eta zentrotik ateratzen azkena denean atea giltzaz ixtea, erabakian beste zerbait ezarri ez bada. Horrekin batera, giltzarekin kopiarik ez egitea. Era berean, lagatako eremuan behar bezala erabiltzeaz arduratuko dira, erabiltzaileak zaindu eta kontrolatuz.</p> <p>i) Argiak itzaltzea instalazioak erabiltzea amaitutakoan.</p> <p>j) Esleitu zaien eremuaren erabilera hirugarrenei ez lagatzea, ez guztiz ez zati bat, taldeko kidea izan zein ez.</p> <p>k) Herritarrentzat zabalik dauden zentroak direnean, sartzeko debekurik ez ezartzea, funtzionamendu ordutegiaren barruan, arraza, sexu, erlijio, iritzi, orientazio sexual edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozialaren ondorioz.</p> <p>l) Irregularitasun, gorabehera edo arazorik sortuz gero, idatziz jakinaraztea Udalari; premiazkoa izatekotan, berehala jakinarazi beharko da.</p> <p>m) Ordenantza, indarrean dauden arauak eta erabilera laga edo baimentzeko erabakia betetzen direla ziurtatzeari dagokionez, segimendu eta ikerketa eskumena erabiltzeko aukera ematea Udalari, uneoro, lekuetara sartzan utziz eta eskatutako informazio eta agiriak emanez.</p> <p>n) Lagatako lokalak helburu politikoekin ez erabiltzea.</p> <p>ñ) Lagatako lokalean alderdi politikoen ikurrik edo ikur erlijiosorik ez ipintzea, ez ikur arrazista edo matxistarik ere, ez eta pertsonen osotasunaren edo euren pentsamenduaren kontrako ikurrik ere.</p>	<p>uso en óptimas condiciones de salubridad e higiene.</p> <p>h) A custodiar las llaves del centro y a cerrarlo cuando sea la última entidad en usarlo, salvo que el acuerdo disponga otra cosa. Junto a ello, no sacar copias de las llaves asignadas. Al mismo tiempo velarán por el buen uso de los espacios cedidos, ejerciendo la vigilancia y el control de los usuarios.</p> <p>i) A apagar las luces cuando terminen de utilizar las instalaciones.</p> <p>j) A no ceder a terceros, ni total ni parcialmente, sea o no miembro del club, el uso del espacio que le ha sido asignado.</p> <p>k) Cuando se trate de centros abiertos al público, a no impedir la entrada, dentro del horario de funcionamiento, a ninguna persona por razón de raza, sexo, religión, opinión, orientación sexual o cualquier otra condición o circunstancia personal o social.</p> <p>l) A comunicar por escrito al Ayuntamiento, cualquier anomalía, incidencia o problema que pueda surgir, y con carácter inmediato en el supuesto de urgencia.</p> <p>m) A permitir en todo momento al Ayuntamiento el ejercicio de la facultad de seguimiento e inspección en cuanto a vigilancia del cumplimiento de esta Ordenanza, de la Normativa Vigente y del acuerdo de cesión o autorización de uso, facilitando el acceso a los diversos espacios y proporcionando la información y documentación que sea requerida.</p> <p>n) A no utilizar los locales cedidos con fines políticos.</p> <p>ñ) A no colocar en el local cedido símbolos de partidos políticos o religiosos, ni símbolos racistas, machistas o que atenten contra la integridad de las personas o su libre pensamiento.</p>
-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------



<p><b>16. artikulua. Udalaren bestelako eskumen eta betebeharrak.</b></p> <p>Aurrez ikusi direnez gain, eskumen eta betebeharrak hauek ditu Udalak:</p> <p>a) Udalak edozein momentutan erabili ahal izango du aurreko artikuluko l) atalean aipatutako ikerketa eskumena. Bertan ondorioztatuko balitz erakunde onuradunak agindutakoa ez duela bete, Udalak agindutakoa betetzeko agindu edo erabilera baimen edo lagapena irautzea erabaki lezake.</p> <p>b) Ordenantza honetatik eta indarrean dauden legeetatik eratorritakoak.</p> <p>c) Zentro bakoitzeko erabilera komuneke eremuak osasun egoera eta higiene baldintza hobezinetan zaintzea.</p> <p>d) Udalaren ardura izango da eraikinaren egitura mantentzeko konponketa eta ordezkien egitea, Udalaren jabetzakoa bada. Horrelakotzat hartuko dira eraikinaren egiturari, fatxadari eta estalkiei eta zerbitzuen kanpoko hartunei eragiten dietenak, zentroa behar bezala erabiltzearen ondorioz gertatu badira, betiere.</p> <p>Horiez gain, lagapen-ondasunak defendatu, berreskuratu, mugarritu eta horietan jarduteko legozkiokeen ahalmen administratibo, zibil eta penalak gordetzen ditu Udalak.</p> <p>Ordenantza honetan eta lagapenetan jaso ez diren bestelako kasuak, Udal Kirol Zerbitzuak interpretatu eta ebatziko ditu.</p>	<p><b>Artículo 16. Otras competencias y obligaciones del Ayuntamiento.</b></p> <p>Aparte de las ya mencionadas el Ayuntamiento tendrá las siguientes competencias y obligaciones:</p> <p>a) El Ayuntamiento podrá ejercer en cualquier momento la potestad de inspección a que se refiere el artículo anterior, sección l). Si de su ejercicio derivara la comprobación de incumplimientos por parte de la entidad beneficiaria, el Ayuntamiento podrá exigir su cumplimiento o extinguir la cesión o autorización de uso.</p> <p>b) Las que se deriven de esta Ordenanza y de la Legalidad Vigente.</p> <p>c) Conservar en óptimas condiciones de salubridad e higiene los espacios de uso común de cada centro.</p> <p>d) Las reparaciones y reposiciones destinadas al mantenimiento estructural del edificio corresponden al Ayuntamiento, siempre que sean de propiedad del Ayuntamiento, entendiéndose por tal el que afecta a la estructura del edificio, sus fachadas y cubiertas y las acometidas exteriores de servicios; siempre que sean causa del uso normal y ordinario del centro.</p> <p>Aparte de ello, el Ayuntamiento se reserva las facultades administrativas, civiles y penales que pudieran corresponderle para la defensa, recuperación, determinación de los bienes cedidos y para actuar en estos.</p> <p>Aquellos posibles casos que no estén contemplados en esta Ordenanza o en los convenios de cesión, serán interpretados y resueltos, por el Servicio Deportivo del Ayuntamiento.</p>
----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------



#### IV. TITULUA. LAGAPENA IRAUNGITZEA ETA LAGAPENAK ITZULTZEA

##### 17. artikulua. Lagapena iraugitzeko arrazoiak.

Honako arrazoiengatik iraugi liteke lagatzeko erabakia:

- a) Hasierako epea edo bere luzapenak amaitu direlako.
- b) Aldeen artean ados ipinita erabaki dutelako.
- c) Erakundeak uko egin duelako edo lagatako eremuak ez direlako elkartearen estatutuetan azaldutako helburuetarako erabili.
- d) Lagatzeko erabakian azaldu ez ziren edo ordenantza honetan ezarritakoaren kontra egiten duten jarduera, zerbitzu edo bestelakoak egin direlako, batez ere partikularrentzako irabazia dakarten jarduera ekonomikoak badira.
- e) Erakunde desegin delako.
- f) Lokala erabiltzeko arazoitutako beharrezana dagoelako hala eskatzen duten beste zerbitzu publiko batzuk emateko.
- g) Udalak besteren titulartasuneko ondasunengan duen eskubidea iraugi delako, horien erabilera elkarteei eskualdatuta duela.
- h) Lokala behar bezala erabili ez delako.
- i) Araudi honetan araututako betebeharren bat bete ez delako.

Erabiltzeko baimen edo lagapena aurreko artikuluko f) edo g) ataletan azaldutakoaren ondorioz iraugi bada, Udala, eragindako taldeekin ados ipinita, erabakian azaldutako lokalean garatzen zituzten jarduera edota zerbitzuak garatzen jarraitzeko beste udal eremu bat ematen saiatuko da, horrelakorik egonez gero.

Lagapena beste arrazoiren bategatik iraugiko balitz, eragindako erakunde edo elkarrekin ez dute inolako kalte-ordain edo konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik izango.

#### TÍTULO IV. EXTINCIÓN DE LA CESIÓN Y DEVOLUCIÓN DE LAS CESIONES

##### Artículo 17. Causas de la extinción de la cesión.

El acuerdo de cesión puede extinguirse:

- a) Por finalización de su término inicial o sus prórrogas.
- b) Por mutuo acuerdo entre las partes.
- c) Por renuncia de la entidad o por falta de utilización efectiva de los espacios cedidos para los fines que se recojan en los estatutos de la asociación.
- d) Por la realización de actividades, servicios u otros no contemplados en el acuerdo de cesión o que contravengan la presente Ordenanza, en especial actividades económicas con lucro para particulares.
- e) Por disolución de la entidad.
- f) Por necesidad suficientemente motivada de uso del local para la prestación de otros servicios públicos que lo requieran.
- g) En todo caso, cuando se extinga el derecho que el Ayuntamiento ostenta sobre los bienes de titularidad ajena, y cuyo uso ha podido transferir a las asociaciones.
- h) Por el mal uso o utilización del local.
- i) Por el incumplimiento de cualquiera de las obligaciones que se regulan en la presente normativa.

En el caso de que la extinción de la cesión o de la autorización de uso venga motivada por los apartados f) o g) del anterior artículo, el Ayuntamiento procurará, de mutuo acuerdo con la entidad afectada, facilitar otro espacio municipal para el desarrollo de las actividades y/o servicios que se venían prestando en el local objeto del acuerdo, si lo hubiera.

La extinción de la cesión por cualquiera de las otras causas citadas no dará derecho a la entidad o asociaciones afectadas a ningún tipo de indemnización o compensación económica.

##### Artículo 18. Devolución de los locales cedidos.



**18. artikulua. Lagapen lokalak itzultzea.**

Erabilera baimendu edo lagatzeko erabakia suntsiarazi edo iraungi ondoren, elkarteak gehienez 15 eguneko epean itzuli beharko dio Udalari lagatako eremu eta ondasunen erabilera. Hori egin ezean, atzeratzeak eragin litzakeen kalte eta galeren arduraduna izango da.

Udal titulartasunekoak ez diren ondasunak direnean, Udalaren eta jabetzaren titularraren artean sinatutako hitzarmena iraungi baino 15 egun lehenago itzuli beharko dira, gutxienez.

**AZKEN XEDAPENAK**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoan sartuko da ordenantza hau indarrean eta Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen Legearen 65. artikulua ezarritako epea igaro eta gero..

Ordenantza hau behin betiko onetsi du udalbatzak 2015eko abenduaren 15ean egindako osoko bilkuran;

Una vez resuelto o extinguido el acuerdo de cesión o la autorización de uso, la asociación deberá reintegrar al Ayuntamiento el uso del espacio y bienes cedidos en el plazo máximo de 15 días. En caso contrario será responsable de los daños y perjuicios que pueda ocasionar la demora.

Cuando se trate de bienes de titularidad no municipal, el reintegro deberá producirse como mínimo 15 días antes de la expiración del convenio suscrito entre el Ayuntamiento y la titularidad de la propiedad.

**DISPOSICIONES FINALES**

De conformidad con lo previsto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, la presente Ordenanza entrará en vigor una vez se haya publicado su texto en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y transcurra el plazo señalado en el artículo 65 de la Ley reguladora de las bases de régimen local.

Esta Ordenanza ha sido aprobada definitivamente el día 15 de diciembre de 2015.